



2017-2019 Plan Estrategikoa

■ Aurkezpena



20 urte baino gehiago igaro dira jadanik Adsis fundazioa sortu zenetik, 50 urte baino gehiago Adsis bere sorkuntzatik garatzen ari den ekintza sozialetik eta 10 urte baino gehiago Xedea eta Baloreak 2008-2013 lehen Plan Estrategikoan lehenengo aldiz formulatu zenetik.

Horregatik, 2017-2019 denboraldirako Plan Estrategiko berria sortu behar denez, Fundazioaren Xede eta Baloreei buruz galdezka aritu gara, bere iraunaldiari buruz eta adierazten diren moduari buruz. Inplikaturik dauden kolektibo guztien erantzuna berbera izan da: Fundazioa sortu zenerako eta balio duenerako, indarrean dago oraindik.

Azkeneko dokumentuak partaidetza prozesuan jasotako ekarpen ezberdinak laburtzen ditu: lekukotik jardun nahi duen organizazio bati buruz (gure Gune eta Programak) komuna dena eraikitzeko. Planak Xede eta Balioak eguneratzen ditu, objektiboak borondatezko langileetan, proiektuetan eta elkartasunetan fokuraturik daude eta Adsis Fundazioak 2019rako daukan ikusmena indartzen, berritzen eta antzematen du.

Carlos Melgar
Zuzendari Nagusia
Adsis Fundazio

Adsis Fundazioko Patronatuak
2017ko ekainaren 28an onetsia



2.or.

■ Xedea

Gizarte bidezkoagoa, solidarioagoa eta barne-hartzaileagoa eraikitzen dugu, dibertsitatea balio gisa onartzen denekoa eta pertsona bakoitzak bere bizi-proiektua garatzeko aukera duenekoa. Pertsona bakoitzak aldatzeko duen gaitasunean sinesten dugu eta zaurgarrienekin konpromisoa hartzen dugu haiengana hurbilduz eta haien ondoan egonez.

■ Ikuspegia 2019

Adsis Fundazioak jarduketa moduetan berrikuntzak egin ditu bere laguntzapean dituen pertsonen beharriari erantzun eragingarriak emateko. Horretarako, barne ezagupenaren trukaketa sustatu du, proiektuetan boluntarioen konpromisoa indartu du, eta Herri Administrazioekiko, enpresekiko eta gizarte erakundeekiko aliantzak gehitu ditu.

■ Balioak



Pertsona da erdigunea

Pertsonarengan sinesten dugu, eta bere potentzial guztian. Giza duintasanarekiko errespetua eta emakume eta gizon bakoitzaren osoko garapena gure identitatearen zati dira.



Senidetasuna

Pertsonak baldintzarik gabe onartzean oinarritutako harreman estilo bat den aldetik, senidetasuna sustatzen dugu, eta elkarrizketa, konfiantza eta konpromisoa erabiltzen ditugu horretarako.



Utopia eraldatzailea

Mundu jasangarri, solidario eta berdintasunean oinarritutakoaren alde lan egiten dugu, tokiko gizarte eraldaketatik hasita.



Parte-hartzea

Pertsona bakoitzak banako eta taldeko aldaketa prozesuetan duen erantzunkidetasuna bultzatzen dugu, bai eta talde eta sare lanean oinarritutako lankidetzak moduak ere.



Berdintasuna

Egozelako indarkeria edo bazterkeriaren aurka egiten dugu lan, eta aukera berdintasunaren eta gizon eta emakumeen arteko tratu berdintasunaren alde.



Gardentasuna

Garena eta egiten duguna erakutsi egiten dugu, gure ekintzaren eta kudeaketaren argitasunaren berri emanez.

■ Lerro estrategikoak



Lerro Estrategikoa: Boluntarioritza Sustatzea

Helburu orokorra:

Adsis Fundazioaren xedea erdiesteko boluntarioen parte-hartzea sustatzea, hauek proiektuetan duten inplikazioa sustatuz.

Helburu bereziak:

1.1. Boluntarioek Adsis Fundazioan duten parte-hartze estrategia eguneratzea, horretarako, Zentro, Programa eta Zerbitzuetako proiektuetan inplikatzeke dituzten aukerak identifikatuz.

1.2. Boluntarioek proiektuetan parte hartu eta laguntzeko deialdi, orientazio eta prestakuntza prozesuak definitu eta hobetzea.

1.3. Boluntarioek proiektuetan duten inplikazioa indartzea, Adsis gizarte oinarriaren uztarduran sakonduz.



2.

Lerro Estrategikoa: Ezagupenaren Kudeaketa Eta Berrikuntza

Helburu orokorra:

xedea erdiesteko jarduketa modu berriak eta erantzun hobekak identifikatu, ADSIS Fundazioko barne lankidetzak eta taldeen esperientzien trukaketa sustatuz.

Helburu bereziak:

2.1. Zentro, Programa eta Zerbitzuetako komunikazio, esperientzi trukaketa eta prestakuntzarako baterako espazioak indartu.

2.2. Fundazioan burutzen diren proiektu guztiak berrikusi, euren inpaktua eta jasangarritasuna kontuan izanda

2.3. Proiektuen xede diren kolektiboen beharrian eta potentzialtasun berriak identifikatu.

2.4. Inguruan dauden jardunbide onei erreparatu, geure jardute modu berriak definitzeko.

2.5. Hausnarketa dinamizatu, esku-hartzeko metodologia marko komunak eratzeko sistematizazioa eta ebaluazioa

3.

Lerro Estrategikoa: Antolamendu Eta Proiektuetarako Ekonomia Eta Langile Jasangarritasuna

Helburu orokorra:

antolamendua jasangarria izateko eta xedea modu egokian erdiesteko politika eta jarduketak artikulatzea, bai ekonomia dimentsioan eta baliabideen kudeaketa mailan, bai eta proiektuak burutzen dituzten pertsona kontratatu eta boluntario taldeen kudeaketa mailan ere.

Helburu bereziak:

3.1 Enprekin eta Hirugarren Sektorera beste erakunde batzuekiko lotura gehiago sortzea, egungo proiektuak indartu eta aukera berriak sortzen lagunduko dituzten aldetik.

3.2 Herri Administrazioekiko harremanak biziagotzea, egungo proiektuak sendotzeko eta jarduera berrien sorketa errazteko.

3.3 Erakunderako garapen profesionalerako plan bat diseinatzea, "lanpostu giltzarrien" "belaunaldi txanda aldaketa"

3.4 Emakume eta gizonen aukera berdintasunerako estrategiak berrikustea, Adsis Fundazio osoan ezartzeko.

Urteko jarduera plana

Plan estrategiko hau Adsis fundazioaren **urteko jarduketa planaren bitartez izango da eragilea**, eta bertako jarduketa eta kudeaketa erlo guztietan aplikatuko da:

- **Adingabe eta gazteentzako planak:**
 - Hezkuntza
 - Prestakuntza eta Enplegua
 - Harrera zentroak
 - Balioetan oinarritutako heziketa
- **Garapenerako lankidetzako programa**
- **Bidezko merkataritza - EquiMercadoo**
- **Zerbitzu Orokorrak**
(Komunikazioa, Administrazioa eta kudeaketa)
- **Menpekotasunak dituzten pertsonentzako programa**
- **Preso dauden eta preso egon diren pertsonentzako programak**
- **Biztanleri immigranteentzako programa**
- **Helduak laneratzeko programa**

